

# ONSA HILTCECO

## BIDIAREN

### BIGARREN CAPITVLIA .

Capitulu huntan frogatçen da Escritura  
 saindiaz, legué çaharraz, onsa  
 hiltceco bidia, dela hiltciaz  
 orrohoitcea.

**E**SPIRV saindiac emaytendu manu, eta conseillu onbat mundu  
 orori Salomon çuhurraren ahotic, erran dianian, *Memorare nouis-  
 sima tua, & in æternum non peccabis!* orhitçité çuré azquen orenean  
 helduco diren gauça berriez, eztuço iagoiti eguiñen bekhaturic.

Ecles 7.

[34]

Nouissima hitz hunec significatçen du herioaren orena, eta manatçen  
 du bat bedera hartçaz orhit içatera, edo oraño significatçen du, arima  
 galdien penac eta supplicio eternalac, ceintara, demonio ororen  
 compañian condemnaturic ioanen baitira hillez gueroz, herioac bekhatian  
 attrapatçen eta surprenitçen baditu: edo significatçen du arima huru-  
 saren eta salbatiaren felicitate, eta contentamendu æternala, ceintara  
 segurqui eta infailliblequi sartuko baita çeruco Erresuma handi hartā,  
 Iencoaren gratian mundu huntaric partitçen balin bada oraño signifi-  
 catçen du iuiamendu particularra, noiz eré arima bat gorpitzcetic ialqui  
 den beçaiñ fité Iencoaren Tribunal iustuaren aitçinera presentatçen  
 baita eta han Iuié iustu haren aitçiñian, haren obra onac, eta gaixtoac  
 oro examinaturic, eta balentça batetan, beçala onsa pissaturic, gorpitça  
 lurrera baitoa, eta arima edo Iencoarequiē Ceruco gloriara baitoa.  
 edo seculacotz iffernura demonio oroquin condemnatcen baita, hori

[35] da iuiamendu particularra; erran dut, iuiamendu particularrean Arima badoala, edo Parabissura, edo Iffernura; ceren Purgatorioa baita heren lekua, hara Ioanic eré, segur baita, handic dembora complituric parabissura Ioanen dela edo endelgatecen da, nouissima hitz hartçaz, iuiamendu generala, noiz eré azquen iudicio general haren egunian, IESV-CHRISTO guré Iauna ginen baita hillen, eta biçien iuiatçera, eta orori oney, eta gaixtoey, gorpitz arimey, errecompentxaren, edo punitionearen emaytera, oney parabisua, eta gaixtoey Iffernua, Ceruaré eta Lurraren aitçinian, eta Aingueruac egonē baitira Iugé haren aldian inguru, inguru trompeta soñuz onen aldé eskuñian, eta gaiztoen aldé ezquerrean berecircic eçarten, eta guisa harta mundu visible eta vnuersal hunec, beré azquen fiña, eta azquen corsua vquenen baitu, horiec dira, nouissima, hitz hunez endelgatu behar diren gauçac, eta horietçaz orhit guiten, dio Salomonec, bekhaturic ez eguitoco, onsa bicitçeco, eta onsa hiltçeco. *Memorare nouissima, & in aeternum non peccabis.* Orhitçité hiltçiaz, eta iagoiti eztu egunen bekhaturic.

Gauça segura da, eta duda gabia, guiçonac, eta emaztiac gogoan ardura eduqui badeça, beré Arimaren, eta Gorpitzçaren separationia, mundu hunen azquen fiña, eta akhauâtça, Iencoaren aitçineā Arimaz eguiñen den iuiamendu particularra gorputçaz, eta Arimaz azquen iudicionian içanen den iuiamendu generala, Iffernuco pena aëternalac, Parabissuco placerac, eta deliciac, eta mundu hunen galtçia, eta deseguitia, iagoitic, ez batac, ez bertçiac, eliroit  Iencoa offensa, ez bekhaturic eguin.

Hambatequi bekhatoria saluationezco eguitecoan, nahi baçira behatu Salomoni, hiltçiaz orhit cit , eta onsa hiltçeco bid  hoberic, iagoiti eztiro  ediren.

[36] Nahidianac fructu onic ian eta goçatu, heldu denian çuhaint an den leccurat, lurrian çuhaintz haren pian diren frutiaric, eztu hart en, ez iat  çuhur bada  eren communsqui lurrian diren frutu onac, gaixtoac baitira, eta hirotiac, eta ez bater  naturalac, bai a sognitendu goiti, eta çuhaintz haren gai ian diren frutu on, fresco, delicatu, eta khirestu eztiren hayetaric iatendu, eta hayet az ber  ahoa, eta ber  estomaca rescat ndu, aleguerat en, entertenit en, eta asset en.

Mundu hau, çuhaintz handibat idurida, haren pian diren frutiaric, oro khiretxu, corr pitu, satxu, eta po oatu dira, hetaric ian bade a u, galdu,  ira, hil  ira bai a egui  so goiti,  u haint e haren thima, baita Cerua, hantic hart a u, nahi tiren be ambat frutu hayec emanen drau   go o eta  apore onbat, ianago, nahiago,  ur  arima appetitua  orrozeturic guelditucoda, eta go o onian ediren du ber  assia, eta ber  assian go o ona, frutu delicatu, eta admirable haren estpar t ac,

Psal. 16.

eta desircundé handiac, erraneraçi cian Dauid Erreguiari, *Satiabor cum apparuerit gloria tua*. Iauna lurreco frutieç eçin assetçen nité, baiña çuré gloria behin ikuhs badeçat, ordian ené arima, bethe, assé, eta complitu içanenda.

Coloss. 3.

Eta nola Ceruco onac eta frutiac baitira aldé orotaric on eta segur, hala hala lurrecoac dira aldé orotaric falso, flaco, eta trompur, hargatic errandu Apostoliac, *quæ supra sunt sapite non quæ super terra*, gogoa eman eçaçié lurreco oney, eta frutiey, ezteçaçielä hayetaric iā, baiña eguiçié so goiti, Ceruco oney, eta frutiey, eta hayetaric ian eçaçié. condatçenda Mithridates Ponté herrico Erregué handibat beldurrez beré Erresuman, edo campoan, çombait traidoré gendé gaixtoc poçoaturic hilleraçi leçaten inuentatu ciala, eguin, edo eguin araçi ciala contrapoçoa admirablé bat, poçoa ororen contré erremedio bat, ceini eman baitcian beré içena icena, eta deitha erraçi, Mithridata, eta mudian çen egunguntiez, beré Mitridat hartaric, iaten, eta errecebitçé ciela, bere bihotçaré, poçoa ororen cotré azcartçeco, eta segurtatçeco, eta nola Erreguiac, hala nola, nor nahiden, fortunarén ioccoaren eta errotarea pera noicic behin, errorten ahal haitira, egun batez, Erregué gaiçoa guerlan, erori cela Erromaco genden, beré exayen escura, eta nahigabez desohoré hura beré personan ikuSSI, non ororen mirail, eta ororen hirrigarri, Erramoto hirian Captiuo eta prisoner estecaturic, eta trocaturic sarladin, beré hala, hartu ciala, eta ian, ediren ahal cian pocoaric bortitçena, eta biciena, vstez berac beré buria hilen cian, baiña aurher eta inutila içan çen, Erregué haren insseia, çeren, nola haren bihotça lehen mithridat contrepoçoa hartçaz ezcarty baitcen orduco poçoa harc, çombat ahal baitçatequian azcar, eta violent etcian vquen asqui indar liaren contré, hari biciaren edequiteco, eta hala Erregué miserablé hartçaz exayac eguin cian placer ciana.

[37]

Bekhatoria, othoy, egüñian behin hassiric çuré gastetassunean harreçaçu contrepoçoa huntaric, eta hartçaz çuré Arima azcar eçaçu eta bazca, eta segurtacité hala eguin badeçaçu ezticula iagoiti bekhaturic eguiñen, *In eternum non peccabis*, eta hambatequi onsa hilen cirela cerén çuré arimaren exai gaistoeç, emanic eré hari poçoa, ezticu vkhenen indarric haren contra poçoa harc hari edequiteco gratiaren bicia, haren barnian den, mithridat, contrepoçoa eder, oneta haitu hura dela causa, ceiñ baita, herioaren memoria, hiltciaz orhitcia.

[38] Lactant.  
lib. de ira  
cap. 13.

Naturalistec diote Vipera, dela Sugué mota gaixtobat, Ceiñec beré aussiquiaz Gendiac, eta Animnlac poçoaturic communsqui hiltçen baititu, eta haren aussiqui gueixtoaren sendotceco, eztela erremedio hoberic, edo contrepoçoa seguragoric, nola, Vipera, Sugué haren beraren herhautsa. Suguiac behar diala erré, eta guero herhaustu

denian, non ere baita çauria, eta aussiquia, han eçarry eta applicatu Suguiaren herhautssetic, eta çauria, eta mina, quand & quant sendotcen direla.

Neuré Adesquidé maytia, nahi ezpaduçu Deabru Sugué gaixto harc çuré Arimari aussquiric, edo çauritic egun diçon, edacaçu çuré bihotçaren cäberan, herioaren herhautsa, estuçu perilic, minic eguindieçaçun bekhaturic egun baduçu, Sugué harc, Deabriac, aussquiric, çuré Arima çaurtia bada, herioaren herhaussetic emá eçaçu appliça eçaçu miñari, eta çauriari, ené gain, çauria, eta miña ezpadite bertan sendo bekhatian bacira, hantic ialguiteco, bekhatian ezpacira, hartara, ez erorteco, Ceruco eta Lurreco Barbarec, estute edirenren erre-medio hoberic, çuri emayteco, nola baita herioarē herhautssa, hiltciaz orhitzia.

Hargatic Salomonec berac, nola iaquintsun baitçen officio huntan, eta baitçaquian Arimen onsa sendotcen, eta eritcetic beguiratcen, errandu ederqui, eta çuhurqui, guré aitcinián hil denaren personan, *Memor esto iudicij mei, sic erit, & tuum, mihi heri, & tibi hodie*, orhítcité ené iuamendiaz, hala, hala icanenduçu çure alidian çuria, atço cen ené aldia, egun içanenduçu çuria, edo ené aldia egun duçu eta bihar içanenduçu çuria eta ceren luçamendiac, eta remiticiac guerotic guerora, eta egunetic egunera periloz eta dangeroz baitira, bekhatoria considera eçaçu pasagé saindu huntan Termiñoa eta Dembora labur direla, errayten diala atço, eta egun, egun eta bihar, guri erakhusteco, nola atço danic egun draiño, egun danic bihar draiño, arté hora baita labur, eta hertsí, *de lunes á mates, pocos sont los artes*, Espagnolac erraiten dian beçala, Dembora hertsí; eta labur hartan, egun oroz, gau oroz, oren oroz, momentu oroz, goician, egunerdition, arratzian, hiltciaz, herioaz, eta guré azquen orenaz behar dugula orhit içan, bekhaturic ez eguiteco, onsa bicitceco, eta hobequi hiltceco.

Salomonec berac, hobequi guré bihotcian, eta guré borondiaren erdian herioaren orhítcia, eta memoria, iossiric, itçaturic, eta escriuataric, vtcí deçan, erraitendu/guiça hontan, *Quid superbis terra, & ciuis, Guiçona etá Emaztia* lur cira, herhautz, cira, eta cergatic, vrguillian, eta superbian şartçen cira: erran nahi balu beçala, mundu orori; Aita Saindia, Cardinalia, Ap-hezpicua, Apheça, Emperadoria, Erreguia, Princía, Duca, Comtia, Marquisa, Baroiña, Aitorensemea, Laboraria, Aberatsa, Pobreza çer hari cira, çer dioçu, çer nahiduçu eguin, erran, edo pensatu, lur cira, herhautz cira, mortal cira, etcirela hebentic harat, vrguillutz, glorioz, eta fanfaron, hil behar ezpapunu beçala, orhítcité lur cirela, herhautz cirela, eta çuré hiltciaz orhituric, bicitçe saindubat bessarca eçaçu sainduqui hiltceco.

[39]

Ecc. 10.

Nahidut sinhetsi, eta sinhestendut, Eliça saindiac, baita IESV-CHRISTOREN Espos maitia, egua ororen iabé, eta habé handia haren odol pretiosaz erossia, eta iccutia, haren beraren Espiritu saindiaz guidatia, éta gobernatioa, vrtian behin gariçumaren lehen egunian, hausterri egun saindian, hautz benedicatiz, fidelen ororen buriac, eta belarrac, Apheçac ceñiatçen dutianian eta erraiten hitz eder hoyec, *Memento horno, quia puluis es, & in puluerem reuertaris*, orhitcíté guiçona, herhauts cirela, eta herhaustu behar, duçula, eztiala vkhen bertcé pensamenduric, ez bertcé intentioneric, guri orori othoitçia, representatcia, eta gomendatcia baici, ardura, eta possiblé baliz, bethiere orhit quintian herioaz, amoretatic haren Espos saindiaren bicité saindiaz orhituric, eta harc gugati Caluariaco Mendian bi Ohoiñen artian iragan dian herio, eta passione dolorosa, guré beguien aitçinian, mirail ederbatı beçala harturic, haren imitationetan, bekhaturic eguin gabé biçiric, haren gratian hiltçeco dohaina, eta fortuna ona, ardietz, eta irabaz ahal guendeçan.

[40]

Orhit niz neuré gastetassunean ikhussíric Pariseco hirian (ceiñ baita Franciaco Erressumaren hiri Capitala guré Erregueen egoité, eta habitationé comuna, eta ordinarioa, eta lur orotaco hiri ederren, eta handien, edo lehenbicicoa edo bigarrena) Eliça handibat, cein deithatçen baita Innocenten Eliça, eta Eliça hartan ikhussidut ilherri handibat, Ceiñetan hil estranger ororen gorpitçac ehorsten baitira comunzqui; eta campoticoec beré Hobiac eta Sepulturac edireten baititusté ilherri handi, eta cabal hartan, hillen heçurrac goiti daudé galerietan inguru, inguru, alchaturic eta hedaturic, eta he çur hayén pian, hillen heçurrac mintçatçen balira beçala, hitz hoyec daudé, Escriturian iarriric lenguié Francesian.

[41]

*Nous auons esté comme vous  
Vous serez aussi comme nous.*

Erran nahibaitu escaraz, gure lengagian, içañ guira ciec beçala, ciec eré içañen ciraté gu beçala.

Eta guero hitz Francez hayen pian, irakhurtcen dira hitz eder batçu latiñez escrituran iarriric, hilé hayen heçur berac, biciey mintçatçen balira beçala, guisa huntan.

*Ibo, Ibis, Ibit,  
Ibimus, Ibitis, Ibunt.*

Explicacen baitira, guré lengagian euscaraz, façoin huntan; Ioane-nitz, Ioanen cira, Ioanenda, Ioanen guira, Ioanen ciraté, Ioanen dira.

Bekhatoria, neurébihotça, aguiá içä cira Parisen, aguián ez, eta han içanic eré, aguián etcira orhitu hilen eçurrec, biciey, erraiten

dutien hitcez, eta proposez, baiña aumenz, curé parropiaco Eliçan sartcien cirenian, eguiçu sobat curé aitciniau Ioan diren curé asquaciac, adisquidiac, eta curé eçagutiac, eta orhituric hayen hilciaz, orhitcíté curiaz, considera eçaçu, içan direla hec beré demboran, çu curian ciren beçala, edo guehiago, edo gutiago, eta cer eré ahal baitcinateque, curé orena, eta curé aldia gin dadifian, nahi bacira, eta ez, curé biçarrac eta curé muthurrac despit diala, hayec beçala herhaustu eta hil beharduçula, hori curé gogoan eta bihotcian harturic, requiem, bedera, hil gaiço hayegatic, Eliçan barnen edo campean erranic, edo erran eracir ic, bateré bada hayen artian, onsa hildenic, eguiçu onsa, hayen hilcé onian curé parthé onarén vkhaiteco, bateré bada hayetan gaizqui hil denic, fiñ gajzto, eguin dianic, hayen exemplutic, curé probetchua eguinic, corrigi cité reforma cité eguiçu penitentia, damna etcitian, hec galdu, eta damnatu diren beçala.

Erranendu çombaitec, orga eçarri dudala idien aitcinián, ceren neuré onsa hiltceco bidiaren brogatceco Salomonen hitçac aitciñ aitciñian lehenic alleguatu, eta raportatu baititut, eta guero ondoan Dauid Erreguiarenac, baitcen Salamonen aita dignia, baiña eztut ansia, ala guibela, ala aitciña, aita semé hoyec biac ederqui, eta sainduqui minçatu dira nic hassi dudan bidiaz, cer eré baita, eta cer eré içanen baita, aitac vkhenen du semiac eztian ohoré hura, beré bekhatien onduan, penitentia handuric eguiñic, eta hartan hilic, Eliça saindiac eduquiten baitu, saluatu dela, parabissuan saindu handibat dela; semiac aldiz, vtcidu eliça saindia dudatan, ala cen saluatu, ala damnatu, eta Eliçaco Doctorac eré, norc beré opinioné particularara bessarcaturic, baitciec saluatu dela, bertceec eztela, batac bai, bertceac ez, bi partoetan iarri dira Salamonen Arimaren eguitecoaz, eta nola pundu hau iugé Oraren iugiaganic baita, dependitçen, dugun hari remeti, eta goaçan atçiña guré bidian, eta ikhussiric Salomonē manu, eta conseidu ederrac, eta saindiac onsa hiltceco moyenaz ikhus deçagun cer erraiten, dian eguiteco hartan berian, haren Aitac Erregué Dauid saindiac.

Aguerida escritura saindian David Erreguiac guré Iencoia bi occasioné handitan particularqui offensatu eta desoharatu ciala; lehena cen noiz

[43] 2, Reg.eré Bersabea edurraren amorio desordenatuac itsuturic, eta liaren 12. buruco huna nahassaric, eta cordocaturic, berzceren emaztiaren ondoan ibilli baitcen, eta hari beré senharra, vria, hil eraci baitcian, hobequi moyen hartçaz beré desircundé gaixtoen harequin complitceco, eta beldurgabé hartçaz placer cianiā, placer cianaran eguiteco, eta colpu batez bi bekhatu handi, eta graué baitçutian cometitu, heriotcia, eta adulterioa, bekhatu hayen punitionetan Erregué hura galdia cioen, eta damnatia secula cotz, Iencoac hartçaz misericordia vkhenic, ezpalu

auertitu, eta mehatchatu beré faltez Nathan Prophetaren ahoaz, eta harc, *Peccauí*, erranic, bené penitetiaz ezpalu reparatu beré bekhatia, eta beré falta.

Bi garren aldian Dauid Erreguiac, guré Iencoа ecarri cian coleran handizqui, territatu, samurtu, eta khecha eraci haren contra, cesen Erresumaco populia condutan eta roletan ecarten ciala, sobera glorificatu baitcen, superbian eta vanitatian sarthu beré buriaz, ordian eré, Erregué miserablé harc, galdu eta peritu beharcian, Ienco misericordiosac ezpalu egorri Propheta Gad hargana, liaren mehatchatcera beré eguiн cian faltaz, eta ezpalu berrisqui Erregué criminel harc beré dolu, eta penitentiaren moyenez, beré bekhatiaren barkhamendia irabaci, han berian Escriturac erraiten dian becala, *Ego sum qui peccauí, ego iniquè egi, isti qui oues sunt, quid fecerunt? vertatur obsecro manus tua contra me, & contra domum patris mei.* Iauna ninuću bekhatotoria, ninuću gaizqui egulia, hoyec ené ardiac dituću, hoyec ezticié oguenic, curé coleraren açotia, ené, eta ené echiaren contré itçul eçaću.

Neuré adisquidia, nahi baduću ikhassi Dauid Erreguiaren secretia, nola ialqui cen beré bekhatutic, nola perseueratu cian, nola ansa hiltcen, iaquin eçaću etcela bertçeric hiltciaz orhitcia, baici, herioaren beldurra, hora cen haren bidia, haren arma, eta haren contrapoçoa, beré etxayen ororen garayteco, hala berac aithortcendu, *Cor meum contrurbatum est in me, timor mortis cecidit super me*, herionaren beldurrac ikharatcen tu ené caiñac, eta ené heçurrac, herioaz orhitcen niçanian, estat onic ez ianian, ez edanian, ez loan, ez ginian, ez Ioanian, ené Arima, eta ené Gorpitça, çaurtu, eta colpatu dira herioaren beldurra dela causa.

Erregué Dauitec ezpatian ediren erremedio hoberic gratian egoyteco herioaz orhitcia beno erra beharda boteré handi diala harc, guiçonaren, eta amaytiaren iencoaren leguiaren pian chuchen, eta ferme egon eraciteco erregué gaiço hora, herioarē beldurra beré bihotçian iauntssiz gueroz,edo beztituz gueroz, ardura mintço da beré herioaz, beré herhautsaz, beré penitentiaz, beré Psalmé orotan quasi, hartacotz eré lencoaganat conuertituz gueroz eguiн çucian cazpi Psalmé Penitentialac, suiel eta materia hontan berian hayetari lehenian dio, *Lauabo per singulas noctes lectum meum, & lacrirmis meis stratum meum rigabo;* Iauna orhituric hil behardu data, eta çure aitcinera presentatu, curé beldurrez eta neuré bekhattien dohuz, eta desplaceréz, gau oroz eguiñen diçut nigar, eta neuré nigarrez, neuré ohia, boustiren, trempaturen, eta vecuciren diçut.

*Cinerem tanquam panem manducabam, & potum meum cum flectu miscebam.* [45] Psal. 101  
Herhautza ogua becala iaten nian, eta neuré edana nahastecatçan nuyan neuré nigarraz, dio harc berac erran nahi du, apairu aldical, neuré

2. Reg.

24.

[44]

Psal. 54

Psal. 6.

ian edana eguiten dudan ordu eta oren oroz, neuré hiltciaz herioaren herhauxetic, edanari neuré beguietaco niguarretaric, nori beré iaquia, egun oroz mayten nian.

Psal. 41. Propheta harc berac dio bertcé lekhu batetan, *Fuerunt mihi lacrimæ, panes die ac nocte*, ené nigarrac, ciren ené ian, edanac, eta ené hazcurria gauaz, eta egunaz; delicatuqui, eta friantqui bici cen Erregué hura haren mahagñian etcenian cerbitçatcen haren platetan berce haraguiric, ez viandaric, ez haren flascoetaric emayten edatera bertce mahaxarnoric, haren bi beguietaric erorten çen nigarretaric baici erran balu beçala, ené gorpitçari emayten dudan oren guciez beré refectioné corporala, oren berian neuré Arimari emayten dut beré refectioné espirituala, eguiten-dut nigar bihotçez bereré, orhitcenitz neuré hilciaz neuré bekathiez, neure Iencoari eman behardudan contu herxiaz, eta guero nigar hetçaz, eta orhitcē hartçaz allegueratcendut, eta consalatcen neuré Arima tristia, eta Arima gaichoa.

Erregué penitent harc berac orhitcen çenian beré hilciaz, eta beré bekhaties, beldurrez eleçan asqui penitentia eguin beré faltez, eta ikhusten cianian etciala beré bihotcian contritionia asqui handi, nigar eguiteco, eta beré nigarrez beré bekhatien chahatceco, eta hayetçaz vccutceco, othoitecz cagoen iencoari igorlicon gratia haren bihotz gogor raren, eta hotçaren, espiritu saindiaren suyaz beracetco, vrtceco, emat-ceco be ré gogora beré bi beguietan behera nigarrez, bi itkhurriren eguiteco, hobequi beré barcamendiaren içateco gratian perseueratceco, eta fiñian onsa hiltceco; haren othoitcia irakhurtcen dugu Psalmo huntan: *Cibabis nos pune lachrimarum, & potum dabis nobis in lachrimis in mensura*. Iauna eguiçu oguibat ené nigarres, eta ogui bartçaz, othoy ardura, ardura bazca neçaçu, eguiçu ené nigarrez beharden eda teco bat, eta hātic indaçu edatera beharden içariac eta mesurac ganti eguinic eré, ezticut ansia neuré çorrac onsa, eta iustoqui pagaturic, çurrequin biciric, çutan hiltcen hanitz ené ian, edana hebentic harat den gauaz, eta egunaz, nigarra, eta contritionia, hurac badutut ber, esperantça dut ené orena jin dadiñian hiltcé onbat vkhenen dudala.

Psal. 79. Neuré adesquidia nahi baduço egua frogatu erran diren Psalmo hoyetan erranen duçu David Erreguia behatoré handibat içanic, penitent handibat içan dela çeren beré bekhatiez, eta beré herioaz ordu onez orhituric saluatceco bidé ona cherçatu eta ediren baitcian, hambatequi erraçu penitent handi harc beré salbamendiaren obligacionia oro çor ciala herioaren memorioari salbatu cela, çeren herioaz orhitu baitçen, eta damnatu içanen cela herioaren orhitcia, eta beldurra oukhen ezpalu hori errandu Psalmo deuot huntan: *Circumdederunt me dolores mortis, & torrentes iniquitatis conturbauerunt me, dolores Inferni circundederūt me,*

*præocupauerunt me laquei mortis.* Vnguratu nuté herioaren penec, eta dolorec, eta ené iniquitatiaren nombré handiac, eta grauitatiac, nahassi nuté, eta lotsatu, Iffernuco penén, eta herioaren laçoen beldurrac, [47] Psal. 17. ikhussi banitu beçala, harrituric, eta lotsaturic, ené arima, eta ené gorpitça, carcelian, eta presondeguian daudé, iduritcen çaut, herioa, eta Iffernua, neuré beguien aitcimian ikhousten ditudala, erregué penitent handi honen deuotionari, capitulo hontan, azquen conclusioniaren emayteco, eta harc herioari conbat ohoré, eta respectu eman dian, behacité azquen Psalmo huni, eta ordian çuré bekhatiez, eta çuré hiltciaz orhituric, ené adesquidia, eguiú nigar edo bihotcez, edo beguiez.

Egunian hiruretan neuré Iencoari, neuré laudorisac, eta neuré esquer alaguestac errendatuco diotçat, ceren ialquiric neuré bekhatietaric, etá herioaz orhituric, bidé onian iarri benitz erranendut mundu orori; Aingeruej, eta giçonej, Ceruari, eta Lurrari, hilej, eta hiciei, çonbat onden Iencoarequin içatia, eta çonbat damu den har enganic apart içatia, eta esperança dut Ienco handiac ené boça, eta ené oyhia entçunen diala, ardura chiago eré beharnuqué, baiñan aumens egunian hiruretan, arratsian, goician, eguberditan, eztut faltaric, eguiñen, cantatçera goraqui, eta publicatçera mundu ororé aitciñian, çonbat gratia, eta çonbat misericordia Iencoac eguindian ené arimari, bekhatiaren larru çaharra vtciric, gratiaren larru berria iauntsi dut, eta beztitu, dio Erregué penitentac, *Vespere, & manè, & meridiè narrabo, & annuntiabo, & exaudiet vocem meam.*

Sinhestendut Eliça saindiac IESV CHRISTOREN Esposa maytiac eta ederrac, Erregué deuot hunen imitationetan, çuhurqui, eta sainduqui ordenatu diala, egunien hiruretan Eliçaco cegñiac populu fidelen artian ioeraci litian, goician, arratzian, eta egotierditan, eta costuma honest, eta laudablé hori, comunz qui deithatcenda Aue Maria ezquillen ioitia arratsian, goician argui ceigñiac, egunerditan egunerdi ceigniac, halaber daducat Eliça saindu harc berac, oukhen diala borondaté, eta intentioné, ez quillaren soiñuez guré bat bederaren obligatceco, eta auerticeco, guré sortciaz beçala, guré hiltciaz eré aumens egunian hiruretan bereré, haiñ bertcé aldis orhituric guré herioaz, eta ialquiric guré bekhatietaric, ikhas guendeçan prest egoitera eguruquiteco gratian guré herioaren, eta onsa hiltceco.

Coinbat Doctor deuotec dioté ceignu horien joitia gindela, guri representatçeco hemabortz Misterio principalen, ceiñ baitira partituar hirur bortcetara lehen hortçac Misterio ioyosac, Bigarré bortçac, Misterio dolorosac, hirur garren bortçac, Misterio gloriosac.

Bertcé hatyuec, dioté handic endelguatçera emaité dela Eliçaco hirur misterio handiren eçagutcia, ceiñ baitira, Annunciationia, Resurrec-

Psal. 54.

[48]

tionia, eta passioné dolorosa. Lehena eguin cela, arratsian, bigarrena goician, hirurgarrena egunerdition hartacotz Eliçan ezquillac hiruretan joiten direla, arratsian, goician, eta egunerdition hirur Misterio hayen memoriaren guré espiritiaren barnian eçarteco, eta haren pitceco, eta hayetçaz orhitera citeeo.

[49] Ne uré adisquidia cer eré baita costuma horçaz Erregué penitent handi harçaz orhituric, eta harturic haren exemplia çuré guida, eta çuré mirail, eztadin iagoiti iaagan egunic, hemendic harat, non hiruretan, etcitian orhit çuré herioaz, hala eguin badeçaçu, esperantça dut David Erregua, bekhatian beçala imitaturen duçula penitentian bici çireño, eta hiltcian oukhenen duçula çuré Arimaren paussia: eta Iencoaren benedictioné saindia.

Isay. 39. Egun batez Ezechias Erregué handi hura beré ohian çagoen hiltceco pundian eritarssun handibatez colpatia, hala dio Escriturac, *Ægrotauit Ezechias vsque ad mortem*; Iencoac Isaya Propheta igorri ciā Erregué eri haren bisitatçera, bisita hartan Propheta mintçatu cen Erreguiari guisa huntan, *Dispone domui tuæ, quia morieris, & non viues*. Erregué Ezechias Iencoaren partez manatçen citut eta abertitcen, emandeçaçun çuré Etcheari, çuré familiari eta çuré eguitecoei beharden ordria, eta errequeitia, eguiçu çuré ordeignia bihar hil behar duçu çuriac egindu. Erregué harc, entçun cian beçain fité Prophetaren ahotic beré herioaren berria eta meçia, Escriturac dio, beré beguitartia paretiari itçuliric othoitz hau eguiñ ciala Iencoari, Iauna othoy, orhítctié, neuré cecuria, eta neure dembora ahal beçanbat, çuré cerbitçuan eta çuré beldurrare pian emplegatu dudala, cer eré çuré beguien aitcinian vsté beinian, cela on eder iusto, eta laudablé, haren eguitera enxayatu niçala, eta oray, othoy indaçu dohaiñ, eta gratia neuré bekhatiez dolu, eta desplacer içateco; indaçu espatio, dembora, eta termaiñu neuré bekhatiez penitentia eguiteco, eta ber orenian beré orationia akhabaturic beré bi beguietan behera nigarrez, bi ithurri hañdiric eguiñ ciala *Fleuit Ezechias flectu magno*.

[50] Ordian guré Iencoa mintçatu cela Erregué hari guisa huntan, *Audiui orationem tuam, & vidi lachrimas tuas, ecce adjiciam super dies tuos, annos quindecim, & de manu Regis Assiriorum eruam te, & Ciuitatem istam, & protegam eam*; Ezechias ené adisquidia, ençun dut curé orationia, eta othoitça eta ikhussi ditut çuré beguietan behera ialqui diren nigarrec, sendo cira, aldi huntá emayten drauçut bicia, eta çuré egunac luçatcen ditut hamaborts vrthez, çuré contritioniaren, eta nigarren amorecatic, Assiriaco Erregua, baita çuré etxaya haren escuetaric, çu çuré hiria, eta çuré Erresuma oro deliuratuko ditut eta deffendatuco, mundu ororen contra. Neuré Adisquidia, soguiçu herioazorhitciac cenbat indar, botheré eta bertuté dian, bihotzbat beratçen du, den gogorrena hantic idoquitendu

nigar, Iencoari edequitendu beré colera, eta armac, escuetaric, eta haren arrestac, eta decretac eré aumens cominatorioac cambiatçen ditu, luçatcen, ematçen, eta moderatçen,eduçaçu solamenté herioa çuré gogoan, eta çuré bihotciañ, hura han baduço ber, eguiñen duçu Iencoaz nahi, eta bahar duçun oro, Iencoac eré beré aldetic eguiñendu çuc placer duçuna oro, hambatequi Iencoa, eta çu, biac bat içanen cirate, çu Iencoarequin eta Iencoa çourequin gratiaz lurrian, eta ceruan gloriaz.

Ezta edireiten legué çaharrian Coraje bat vertute bat, constantia bat, eta patientiebat Iencoaren cerbitçaren artian haiñ handiric, ederric, miragarriric, eta quasi adorableric, nola içan baita Iob saindiaren Corija virtutia, constantia, eta patientia, orienteco herrian cen iaunic handiena, lehena, edo lepenetaric bat cen Iob saindia, Iencoaren cerbatçari handi hura, hala dio Escritura saindiac. *Erat vir ille magnus inter omnes Orientales.* Iencoac eman cian/guiçon hari çazpi semé, eta hirur alaua beré emastearen ezcontcian eman ceron oraño guré fecoac/guiçon hari çazpi mille ardi, hirur milla Cameleon, bortz ehun idi paré, bortz ehun asto ama, lur etché, borda, eta bercé onic, eta ederric Franco, eta egunbatéz ikhussi cian beré buria goician ohetic laudan orienten cen iaunic handiena, eta aberatcena, eta arratzian oheracoan ikhussi cian beré buria oriente cen guiçonic miserablena, eta ezqueleric handiena, deabruac sathan gaixtiac, Iencoare permissionez aldé orotaric Iob saindia attaccatu cian, affligitu, eta ruinatu, bena harc eduqui on sathanen tentationé ororen centré, eta iagoiti ez galdu Iencoaren beldurra, eta haren amudioa deabruac onsa attaccatu cian, eta Iobec hobequi deffendiatiu, trompurra trompatia guelditu cen attaccatçaliac ohoria, combata, eta victoria galdu, eta attaccatia çenac, ohoria, combata, eta victoria irabaçi.

Berri tristiac, eta dolorosac Iob saindiari heldu dira beré etchian, meçubat heldu da campotic, eta dio Iob saindiari guisa hunta, launa sabæa herritic puré etxaiac ginic armaturic, çuré bortz ehun idi pariac, eta bortz ehun astoac oro, alchaturic elguetic eraman ditusté, eta hayen beguirçaliac oro nitçaz berzciac elguian hillic colpez, eta massacraturic hedha hedha diaudeçu, ni ihessi escapaturic helduniz çuri berriaren condatcera.

Heldu da bercé meçubat, eta dio, Iauna Cerutic subat erorida mendian çuré ardietan, eta artçaiñen burietan behera, eta ardiac, eta artçaignac oro su harc berac erratcen hassiric, bortcha escapatu niz çuri berri haren contatçeco.

Hirurgaren mecia heldu da eta dio, Iauna chaldea herrico gendec çuré etsayec, gende handibat, eta armada handibat, eguinic Infanteria, eta Caualeria helduric, choriac luma ayrian beçala, çuré hirur milla

[51]

[52]

Camelonac altchaturic, herriz camporat eraman, eta idoqui dituzté, curé Caualia, eta acienda oro galdu da hil da etanic colpe eguindut itçurciaz curi berri hunen errayteco.

Laur guerren meciac dio, Iauna curé cazpi semiac, eta hirur Alauac curé haurrac oro, semé primiaren eta guehienaren etchian elkarrequin bona chera eguiten cirela, eta mahatx-arnoric hobenetic elquarren gratia onori beiriac beteric edaten cirela, eta elquarrequin beré ian, edanian placer hartçen, eta alagueratcen haicé hegoa handibat eta furiosbat, eguoerdi aldetic ialquiric, etchia, beré laur erro etaric, eta laur gontearic piaz gora eçarri diçu bat batian, eta beré pian oro etchiac erorten dela, arrabascatu, çitiú herraustu, eta porrocatu, curé haurrac oro, curé familia oro galdu da, eta peritu, hayenac eguindu, aita çira haur gabé guertatu.

Berri tristé hogen ondean, Iob saindiaren gorpitça aztalian hassiric haren buru tinira draño, ezcabia, tigña, hazteri, çaccar lodibatec, hartucian, eta beztitu, beré gorpitça, gorotzaté batetan gaignian hedaturic çagoela harrec haren gorputceco haraguia bicirc iaten çuela, Iob saindiac ikhussi çiã, eto oraño manera hartan çagoela, beré emazté propiac, milla des-ohoré, eta milla mesperechu, beré beguien aitcinian, eguiñcioen eta deabru gaixtoac Iencoaren permissionez, aldé orotaric, beré onetan, beré ohorian, eta beré personan, arima salboric, milla inuirio, eta milla mesperechu eguiñ ciã guiçon saindu hari, eta harc oro soffritu, eta patitu, Iencoaren amorecatic, patientia handitan, eta patientia harc hura errendatu, Iencoaren, eta guiçonen aitcinian patientia ororen exemplu, eta mirail handia. Neuré adisquidia nahi ducia iaquin, nola, eta çer guisaz Iob saindiac, miracullu handi hec eguiñ çutian erranen derautçut, bere hiltciaz, eta beré herioaz orhitucen, eta herioaren herhautzaz armaturic, beré buria garaitu çian dia-brua accaçatu, bere ohoriaren beré haurren? beré onen galicia, beré emastearen mesperechioac, beré gorpitceco eritassunac, eta penac curagosqui eta patiètqui suffritu, eta erreccibitu, sobat eguiñ çian beré sortciari eta beré hiltciari, consideratu cian, nondic giten çen, eta norat ioan behartcian, eta ené bidiaz orhituric, beré buriaren contra, eta beré etxay ororen contra victoria ederbat, eta khoroa handibat irabaci çian, eta ardietsi, ené errana, egua dela berac dio, ikhussi cianian beré buria estatu eta postura miserablé hartan, beré beguiac behera lurrerat ap-haldioric hassi çen Iencoari guisa huntan mintçatcen. *Nudus egressus sum de vtero matris meæ, & nudus reuertar illud, Dominus dedit, Dominus abstulit, sicut Domino placuit, ita fuctum est, sit nomen Domini benedictum*

Iauna badaquit, billuz gorri gorria, neuré amaren sabeltic ialqui niçala eta badaquit halaber hil behar dudala, eta billuz gorri gorria lurrerat

[53]

[54]

itçulico nicala, çuc emanic nituen guiac eta çuc boteré cinduen beçala, edequi derauztatçu, çuc placer duçun beçala egunda, dela benedicatu curé icen saindia. Adoratcen çaitut, maytatcen, eta laudatcen, eta nahi çaitut bici naiceño, adoratu, maytatu, eta laudatu, estut ansia neuré onen galciaz, cu baçaitut ber, asqui aberatx, eta iaun handi içanen niz.

Neuré adisquidia, Iob saindiaren arma hori harturic, ordu onez, IESV CHRISTOREN soldadu on bati emanden beçala, orhit cité herioaz, *Memento mori*, eta çuré orena gin dadiñian, çuré arima khoroaturic iarrico da içarrac baño gorago, Ceruric goren gorenian, eta nola egui-teco orotan particularqui arimaren eguitecoan luçamendiac baitira dangerous, eta perillos guerotic guera, egunetic egunera, luçatu gabé, cure herioaz orhituric, ené bide hontan sarcité, eguiçu penitentia, onsa hiltceco eztaquiciun guerta, noizpait guertatu cena bekhatoré gogortu, harritu, eta obstinatu handi bat; Surcus historiano deuotac dio, guiçon gaixto harc erraiten ciela ardura, ardura, asqui ciela hirur hitcez saluат-ceco, eta bere hiltcian beré hirur hityac erranic saluatuco cela anartean etciala ansia trufatcen cela penitentia eguitiaz, beré confessoraz eta haren conseillu, eta auisu orotçaz, hirur hitz hec ciren, Miserere *mei Domine*, Iauna nitçaz misericordia euçu: çer heldu cen fiñian, Iencoa, on bçala, baita iustu, permetitu cian, behhatoré gogor hura, igaran ladin çubi batetan, eta igaraiten cela çamariz çubi haren gaiñian, vrité, oragé, vhazté, eta temnesta handihat ginic, çubia eraman cian vrac, camalduna eta Camaria berequin erortian vrean behera çamaldun gaix-toac erran lekhuan beré espechoan, beré hirur hitçac, Miserere *mei Domine*, deabruac haren memoria eta iuiamendia nahassiric, hirur hitz malhurus eta tristé hauc erran citué hiltcian, *Rapiat omnia Daemon*, erran nahi baita, deabruac eraman detçala guciac eta manera harta guita gaixto harc beré hiltciaz orhitu faltaz asqui ordu ouez, eta beré penitentiaren sobera luçatuz, beré buria miserablequi galdu cian, eta damnatu.

1

P.

[55]

Neure adisquidia, vstedut capitulu vhuntan ediren duçula, çuré herioari çorduçun ohoria, amorioa, eta orhitcia eta vstedut ediren duçula giten den capitulian, haiñ bertcé occasioné herioaren maitatceco, hartacotz bidé huntan goacen aitciña.

x x x x x x x x x x x x x x x x x x x